



## **ESKOLAKO OHARRAK**

### **ELIZALDE EGUNA**

Aurreko igandean, maiatzaren 16an, Elizalde Eguna ospatu behar genuen, baina bizi dugun ez ohiko pandemia egoera dela eta, ezinezkoa izan zen. Horregatik, ikasleen burbuilak mantenduz bideo hau grabatu genuen aurreko astean. Hemen duzue lotura. Goza ezazue:

<https://sites.google.com/elizalde.eus/multimedia/orri-nagusia/ekintza-bereziak/elizalde-eguna-2021>



### **JARDUN JARRAIA**

Ikasturte amaiera iristen ari da eta ekainak 2an, asteazkena, jardun jarraiko jardunaldiari hasiera emango zaio. Hori dela eta, gogorarazi nahi dizuegu, etxean bazkaltzen duten ikasleek, eskola 12:30etan bukatuko dutela; jangelan bazkaltzen duten ikasleek ordea, 14:30etan bukatuko dutela. Era berean, bazkalosteko garraio zerbitzua 14:30etan hasiko da.

### **ATERPEA**

Hurrengo ekainak 2an, asteazkena, jardun jarraia hasten dugun egunean, arratsaldeko 15:00etatik aurrera, aterpeko lurrean tratamendu berezi bat egingo da. Hori dela eta, aterpea ez da erabilgarri egongo.


### **JANGELA**

Ekainaren 2tik aurrera, goizeko jardunean bakarrik lan egingo dugu. Hori dela eta, ikasturtean zehar jangelan bazkaldu ohi duten hainbat ikaslek etxean bazkalduko dute beraien familiekin. Janaririk ez xahutzeko eta ahalik eta erabilpen egokiena egiteko, egun horietan jangelan bazkaldu beharrean etxean bazkaltzeko asmoa baldin baduzue, eskolan telefono bidez edo email bidez jakinarazi, mesedez. Eskerrik asko.



## **COVID19**

Gauden pandemia egoeran, ikasleen PCR frogen emaitza positiboa denean eskolako zuzendaritzari edo ikasleen tutoreei jakinaraztea eskatzen dizuegu, mesedez. Honela guk gure barne protokoloa ahalik eta azkarren martxan jar dezagun.



## **APARKALEKUA**

Familia guztiei gogorarazi nahi dizuegu, eskolako aparkalekua eskolako langileek soilik erabili dezaketela. Familia batzuek oraindik errespetatzen ez dutenez, Udaltzainak jakinaren gainean jarriko ditugu modu desegokian erabiltzen den bakoitzean.



## **MAIATZAREN 17A**

### **Zergatik ospatzen da maiatzaren 17a?**

1990. urtean, Osasunerako Mundu Erakundeak homosexualitatea gaixotasunen zerrendatik ezabatu zuelako. Lesbianek, homosexualek, bisexualek eta transexualek pairatzen duten diskriminazioa salatzeke eta mundu osoan haien eskubideen alde egiteko antolatutako askotariko ekintzak koordinatzea da egun horren helburu nagusia.



